

ABIZENAK

IBARGUEN: “Ibar-” lurralde , zelaia da eta “-guen” “-goien”etik teoría. Bien artean “Ibarraren goi-aldean” dagon etxea edo soloa. Zeanurin dago etxe bat eta Fruniz’en beste bat. Gero jauntxu ganboatarren artean zabal. 1397n. urtean Getariar baten abizena. Azkoitian 1415.

IBARGUTXI: Ubidean dago geien eta andik zabaldu da Zeanurira ta Legazpira. Ibar txikia esan nai du.

IBARLUZEA: Azpeitian eta Arrasaten, Gipuzkoan, eta Markiña-aldetik zabaldua Bizkaian. Arrasaten 1535, Azpeitian 1624.

IBARZABAL: Gipuzkoan zabal eta Bizkaian be asko. Be-aldeko lur zelai zabala esan nai dau. Eibarren 1624.

IBARRA: Bizkaian erririk geinetan dago auzoren bat eta Gipuzkoan: Eibar’en bi, goikoa eta bekoka, eta erri askotan. Araban Aiala-aldean eta Benabarran, Nabarra’ko Leizan. Be-aldean dagoan lur zelaia da. Elgeta 1491.

IBARROLA: Aialan eta Bizkaian . Ibar asko dagoan tokia, baiña ibarreko olea? Getaria 1391.

IBISATE: Laminoria Araban. “Ibi-” erreka da eta “-ate” sartzeko oinbidea. Balladolid 1789.

IKAZA: Erandion. Iko-landarak dagoen lekua. Eorrio 1680.

IKAZTEGIETA: Tolosan eta Bizkaiko Arrietan. “Ikatz dagon lekuak”. Tolosan 1346.

IZETA: Aian bi, garaikoa ta azpikoa. “Izai” erdarazko “abeto” da eta “Izeta” olakoak dagoen lekua. Edo izak (junko) dagoen lekua: “Juncal”. Getarian 1474.

IDIGORAS: Gipuzkoan, andik Bizkaira: Ira-arloaren goiena esan nai dau. Oñaten 1348.

IDOIAGA: Gipuzkoan eta Bizkaiko ereñon. Irak dagoan lekua. Idoi: Nabarra 1279.

IGARTUA: Gantikan eta Zeanurin. Legortua edo sika-tua esan nai dau. Ondarribin 1661.

ILLARRAMENDI: Tolosan iru: goikoa, bekoka ta erdikoa. Otez beterik dagoan mendia esan nai dau. Isasti. 1625.

IMATZ: Lenengo Lazkaon eta gero Durangon. Mimenak dagoan lekua da eta Oñaten agertzen da 1596n. urtean.

INTXAURRAGA: Abizena Zeanurin eta etxea Fikan. Intxaur-landarak dagoan lekua esan nai dau. Bilbaon 1785.

INTXAURBE: Orzokon eta Arratian. Intxaur-landarearen azpian esan nai dau eta BilbAon 1769 agertu.

INTXAUSTI: Natxitun, Algortan, Gantikan eta Gipuzkoan zabal. Intxaur-landara asko dagon lekua da. Balladolid ‘en 1614.

INDURAIN: Naparroan zabaldua. Andurain’etik teoría da. Bedar-lekuaren gainean esan nai dau.

INTZA: Berastegin. “Inz” edo “junko”ak dagoan lekua. Urretxun 1620.

IPARRAGIRRE: Irun’en asi eta Gipuzkoa guztian. Elorrioren be bai. Iparrera zabalik dagoan etxea edo iparraldeko bedar-lekua. Donostian 1566.

IPIÑA: Zeanurin eta Arratian. Gamiz’en be bai.”Mimena dagon lekua” esan gura dau. Len “Ipiñaga”.

IRATXE: Naparroan. Irea edo iretza.

IRAOLA: Gipuzkoan zabal, Bizkaian gitxi. Ira asko dagoen lekua esan gura dau. Azpeitian 1603.

IRAOLAGOITIA: Gipuzkoan eta Markiña-aldean. Iraola etxearen goitik dagoana. Elgetan 1787.

IRARAGORRI: Gipuzkoatik Bizkaira etorria. Tolosan 1625. “Irrarra-“ otea da eta “-gorri-“ utsa edo margoa. Eibar’en 1615.